Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 21a, asteartea — 136 — Martes, a 21 de julio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Oinarri espezifiko arautzaileak eta deialdia dirulaguntza honetarako: herriko saltokiei zuzendutako Gure Dendak bonu-kanpaina tokiko merkataritza sustatzeko (2026).*

Tolosako Udaleko Aitor Aguirresarobe Murgui zinegotzi delegatuak, bi mila eta hogeita seiko uztailaren hamarreko 2026/2113 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman zuen:

*Lehena.* Gure Dendak 2026 tokiko merkataritza sustatzeko bonu-kanpainaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, ondorengo testuaren arabera:

*Oinarri espezifiko arautzaileak dirulaguntza honetarako: herriko saltokiei zuzendutako Gure Dendak bonu-kanpaina tokiko merkataritza sustatzeko (2026).*

1. *Dirulaguntzaren xedearen definizioa.*

Oinarri hauen xedea da Gure Dendak bonu-kanpaina (2026) arautzea eta udalerriko merkataritza-establezimenduek parte hartzeko baldintzak ezartzea, tokiko txikizkako merkataritza sustatzeko eta kontsumo arduratsu eta jasangarria bultzatzeko helburuarekin.

2. *Bonu-kanpainaren xedea.*

1. Tolosako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetan kontsumoa bultzatzea.

2. Hiri-ekonomia dinamizatzea eta tokiko merkataritzaren lehiakortasuna indartzea.

3. Erosketa presentzialak bultzatzea eta hurbileko merkataritzan bezeroen leialtasuna sustatzea.

4. Tokiko merkataritza-sareari lotutako jarduera ekonomikoari eta enpleguari eusten laguntzea.

5. Herritarrak sentsibilizatzea Tolosako hiri-merkataritzan kontsumo arduratsu eta iraunkorra egitearen garrantziaz.

3. *Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea.*

Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2026-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2025eko azaroaren 27an (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 7. zk. 2026-01-13).

4. *Pertsona edo entitate onuradunak.*

Dirulaguntza jaso ahal izango dute Tolosako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduek.

Pertsona edo entitate onuradun (aurrerantzean, onuraduna) izan ahalko dira pertsona fisikoak (norbere kontura aritzen diren langileak edo autonomoak), pertsona juridikoak (edozein dutela ere izaera juridikoa) eta ondasun-erkidegoak, baldin eta oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Bases específicas reguladoras y convocatoria de la concesión de la subvención: campaña de bonos Gure Dendak dirigida a comercios locales para fomentar el comercio local (2026).*

El concejal delegado Aitor Aguirresarobe Murgui del Ayuntamiento de Tolosa, mediante Decreto 2113/2026, de diez de julio de dos mil veintiséis, dictó la siguiente resolución:

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de la concesión de subvenciones correspondientes a la campaña de bonos Gure Dendak 2026 para el fomento del comercio local, conforme al siguiente texto:

*Bases específicas reguladoras de la concesión de la subvención: campaña de bonos Gure Dendak dirigida a comercios locales para fomentar el comercio local (2026).*

1. *Definición del objeto de la subvención.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la campaña de bonos Gure Dendak (2026), y establecer las condiciones de participación de los comercios del municipio, con el objetivo de incentivar el comercio minorista y fomentar un consumo responsable y sostenible.

2. *Objetivos de la campaña de bonos.*

1. Impulsar el consumo en los establecimientos comerciales y de servicios de Tolosa.

2. Dinamizar la economía urbana, y reforzar la competitividad del comercio local.

3. Incentivar las compras presenciales y fomentar la fidelización de la clientela en el comercio de proximidad.

4. Contribuir al mantenimiento de la actividad económica y del empleo vinculado al tejido comercial local.

5. Sensibilizar a la ciudadanía sobre la importancia de realizar un consumo responsable y sostenible en el comercio urbano de Tolosa.

3. *Integración en el Plan Estratégico de Subvenciones.*

Esta línea de subvenciones está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa 2026-2028, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 27 de noviembre de 2025 (Boletín Oficial de Gipuzkoa, n.º 7. 13-01-2026).

4. *Personas o entidades beneficiarias.*

Se incluyen en el ámbito subvencionable los establecimientos comerciales y de servicios de Tolosa.

Podrán obtener la condición de persona o entidad beneficiaria (de aquí en adelante beneficiaria) las personas físicas (las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas), las personas jurídicas (cualquiera que sea su naturaleza jurídica) y las comunidades de bienes que cumplan con los requisitos establecidos en las presentes bases y en la correspondiente convocatoria.

EK\CV GAO-I-2026-04745

*5. Establezimenduek kanpainara atxikitzeko bete beharreko baldintzak.*

Hona hemen pertsona edo entitate onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

1. Tolosan kokatuta egotea, eta hiri-merkataritzako jarduerari lotutako merkataritza-establezimendua edo zerbitzu-establezimendua izatea.

2. Jarduera kale-mailan kokatutako lokal batean garatzea.

3. Baimendutako EJZren epigraferen batean alta emanda egotea (oinarri espezifiko hauen I. eranskinean adierazitakoak). EJZko bi epigrafetan edo gehiagotan alta emandako erakundeak onuradun izan daitezke, baldin eta horietakoren bat diruz lagundu daitezkeen jardueren artean badago.

4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

5. Betearazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.

6. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.

7. Ez izatea berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.

*6. Dirulaguntzak emateko prozedura.*

1. Lehiarik gabeko konkurrentzia erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.

2. Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta.

*7. Diruz lagungarriak diren jarduerak eta aplikazio-eremua.*

1. Diruz lagunduko da kanpainari atxikitako hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetan egindako kontsumoa, establezimendu horietan erabilgarri egongo den deskontu-bonu mota bakar baten bidez.

2. Erosketa-bonu bakoitzak 10 euroko unitate-balioa izango du, eta metagarriak izango dira. Horrela, 30 euroko gastu bakoitzeko bonu bat aplikatu ahal izango da:

— Gutxienez 30 euroko erosketak eginda, 10 euroko deskontua.

— Gutxienez 60 euroko erosketak eginda, 20 euroko deskontua.

— Gutxienez 90 euroko erosketak eginda, 30 euroko deskontua.

— Gutxienez 120 euroko erosketak eginda, 40 euroko deskontua.

— Gutxienez 150 euroko erosketak eginda, 50 euroko deskontua.

3. Pertsona bakoitzak, gehienez, 5 deskontu-bonu erabili ahal izango ditu.

4. Erosle bakoitzak establezimendu bakarrean edo batzuetan erabili ahal izango ditu bonu-deskontuak.

5. Era berean, bonu-deskontuak erosketa bakar batean edo hainbat erosketatan erabili ahal izango ditu erosle bakoitzak.

*5. Requisitos que deben reunir los establecimientos para adherirse a la campaña.*

Los requisitos generales que deben cumplir las personas o entidades beneficiarias son las siguientes:

1. Ser un establecimiento comercial o de servicios vinculado a la actividad comercial urbana, radicado en Tolosa.

2. Desarrollar la actividad en un local situado a pie de calle.

3. Estar dado de alta en alguno de los epígrafes del IAE permitidos (indicados en el anexo I de las presentes bases específicas). Las entidades dadas de alta en dos o más epígrafes del IAE podrán ser beneficiarias siempre que alguno de ellos esté incluido entre las actividades subvencionables.

4. Estar al corriente en el cumplimento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

5. No mantener deudas o sanciones tributarias en periodo ejecutivo con el Ayuntamiento de Tolosa, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

6. No encontrarse en ninguno de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

7. No estar incursa en sanción administrativa, laboral o penal de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción, o no estar incursa en ninguna prohibición establecida en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, o en cualquier otra causa estipulada en las normativas aplicables.

*6. Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión será el de concurrencia no competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

2. El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en la Base Nacional de Subvenciones, así como en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*7. Actividades subvencionables y ámbito de aplicación.*

1. Se subvencionará el consumo en los establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial urbana adheridos a la campaña, a través de un único tipo de bono-descuento disponible en los mismos.

2. Cada bono-descuento tendrá un valor unitario de 10 euros, y serán acumulables. Por cada 30 euros de compra podrá aplicarse un bono, conforme a las siguientes condiciones:

— 10 euros de descuento por compras mínimas de 30 euros.

— 20 euros de descuento por compras mínimas de 60 euros.

— 30 euros de descuento por compras mínimas de 90 euros.

— 40 euros de descuento por compras mínimas de 120 euros.

— 50 euros de descuento por compras mínimas de 150 euros.

3. Cada persona podrá adquirir un máximo de 5 bonos-descuento.

4. Dichos bonos-descuento podrán ser utilizados por cada persona compradora en varios o en un único establecimiento.

5. Asimismo, los bonos-descuento podrán ser utilizados por cada persona compradora en una única compra o varias compras.

EK\CV GAO-I-2026-04745

6. Bonuak ezin izango dira esku-diruagatik trukatu, eta ez da inolako diru-itzulketarik egingo.

7. Bonu-kanpainan parte hartu ahal izateko, erosleek 16 urte beteta izan behar dituzte.

8. Erosketa-bonuak salmenta-puntuan aplikatuko dituzte, zuzenean, kanpainan izena emandako establezimenduek, Tolosako Udalak jarritako web plataforma baten bidez eta kanpainako ezarritako arauen arabera.

*8. Bonu-kanpainara atxikitzeko prozedura, eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Eskatzaileek Tolosako Udalak prestatutako web-plataforman eman beharko dute izena dagokion formularioa beteta, eta erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.

2. Pertsona edo erakunde titular berak establezimendu bat baino gehiago baditu, eskaera bana aurkeztu beharko du establezimendu bakoitzeko, nahiz eta IFK edo NAN bera izan. Banaka inskribatutako establezimenduak baino ez dira kontuan hartuko.

3. Formularioak erantzukizunpeko adierazpen bat jasoko du, honako hauek adierazteko:

a) Sinatzaileak erakunde eskatzailearen ordezkari gisa jarduten duela, eta baduela horretarako legezko gaitasun nahikoa.

b) Ezagutzen eta onartzen dituela oinarri arautzaile hauek eta bonuen kanpainaren kudeaketa-prozedura, eta betetzen dituela parte hartzeko baldintzak.

c) Kanpainari atxikitzeko borondatea adierazten duela, eta konpromisoa hartzen duela atxikitzetik eratorritako betebeharrak betetzeko.

d) Egunean dituela Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

e) Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela dirulaguntzen onuradun izateko debekurik indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

f) Tolosako Udalari baimena ematen diola oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar diren egiaztapenak egiteko.

g) Ez dagoela Tolosako Udalak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak eta agiriak kontsultatzearen eta egiaztatzearen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

4. Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentaziorik, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jarduera gauzatzen jarraitzea gertaera horien berri izaten den unetik aurrera, eta, gainera jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira. Halaber, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar ditzake (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

5. Agiriak kontsultatzearen aurka egiten bada, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

6. Los bonos no podrán canjearse por dinero en efectivo, y no se realizará ningún tipo de devolución.

7. Para poder participar en la campaña de bonos, los/as compradores/as deben tener cumplidos 16 años.

8. Los bonos de compra serán aplicados directamente en el punto de venta por los establecimientos registrados en la campaña, a través de una plataforma web habilitada por el Ayuntamiento de Tolosa y de acuerdo con las normas de la campaña establecidas.

*8. Proceso de adhesión a la campaña de bonos, y documentación a acompañar a la solicitud.*

1. Las personas o entidades interesadas deberán inscribirse en la plataforma web habilitada por el Ayuntamiento de Tolosa, cumplimentando el formulario correspondiente, que deberá ser firmado por la persona que ostente capacidad legal suficiente para representar a la entidad solicitante.

2. En el caso de que una misma persona o entidad titular disponga de más de un establecimiento, deberá presentar una solicitud por cada uno de ellos, aunque compartan el mismo CIF o NIF. Únicamente se tendrán en cuenta los establecimientos inscritos de forma individualizada.

3. El formulario incluirá una declaración responsable en la que se hará constar lo siguiente:

a) Que la persona firmante actúa en representación de la entidad solicitante, y dispone de capacidad legal suficiente para ello.

b) Que conoce y acepta las presentes bases reguladoras y el procedimiento de gestión de la campaña de bonos, y que cumple los requisitos establecidos para participar en la misma.

c) Que manifiesta su voluntad de adherirse a la campaña, y se compromete a cumplir las obligaciones derivadas de dicha adhesión.

d) Que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

e) Que la persona o entidad solicitante no se encuentra incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de subvenciones previstas en la normativa vigente.

f) Que autoriza al Ayuntamiento de Tolosa a realizar las comprobaciones necesarias para verificar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las presentes bases.

g) Que no se opone a que el Ayuntamiento de Tolosa consulte y verifique los datos y documentos necesarios para comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las presentes bases, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

4. La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable, o la no presentación ante la Administración competente de la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, además de la devolución de los importes recibidos. Asimismo, podría acarrear responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

5. En caso de oposición a la consulta de documentos, deberá aportar la siguiente documentación:

a) Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Certificado de estar al corriente de los pagos con la Seguridad Social.

EK\CV GAO-I-2026-04745

c) Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan (JEZ) altan egotearen agiria.

d) Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

6. Eskaerak aurkezteak esan nahi du atxikimendua eskatzen duten establezimenduek berariaz eta formalki onartzen dituztela deialdi honen oinarriak arautzen dituzten baldintzak.

7. Eskaera aurkeztu ondoren, establezimenduak pantailan ikusiko du izen-ematea behar bezala egin dela. Behin deialdiaren ebazpena eman eta Udalaren webgunean argitaratu ondoren, onartutako establezimenduei baieztapen-mezu bat bidaliko zaie posta elektronikoz.

*9. Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria.*

1. Interesdunek eskubidea dute administrazio publiko baten esku dauden edo administrazio publikoek egin dituzten dokumentuak ez aurkezteko, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Ondorio horietarako, Tolosako Udalak dokumentazio hori kontsultatu edo eskuratu ahal izango du horretarako gaitutako elkarreragingarritasun-plataformen bidez, interesdunak berariaz aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, interesdunak behar bezala justifikatu beharko du, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3. Ildo horretan, Tolosako Udalak honako datu hauek egiaztatuko ditu bonu-kanpainaren izapidetzean:

— Ofizioz eta aldez aurreko baimenik behar izan gabe egiaztatuko ditu hauek:

1.— Tolosako Udalaren datu baseetan, udalarekiko ordainketa-betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

2.— Nisae bidez, nortasun-datuen kontsulta, Poliziaren Zuzendaritza Nagusian.

— Eta honako datu hauek egiaztatuko ditu, Nisaeren bidez, interesdunak berariaz aurka egin ezean:

1.— Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

2.— Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

3.— Dirulaguntzarik jaso ezin izateari buruzko kontsulta.

4.— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) datuen kontsulta.

— Eusko Jaurlaritzaren bidez, banku-korrontearen titulartasunaren egiaztapena, interesdunak berariaz aurka egin ezean.

Salbuespen gisa, organo instrukzio-egileak ezin baditu aurreko apartatuetan aipatutako dokumentuak eskuratu edo egiaztatu, interesdunari berriro eskatu ahal izango dio dokumentazio hori aurkezteko.

*10. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.*

Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu behar dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

c) Alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE).

d) Certificado de la titularidad de la cuenta corriente.

6. La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria por parte de los establecimientos que solicitan la adhesión.

7. Una vez presentada la solicitud, el establecimiento visualizará en pantalla que la inscripción se ha realizado correctamente. Una vez dictada la resolución de la convocatoria, y publicada en la página web del Ayuntamiento, se remitirá un mensaje de confirmación por correo electrónico a los establecimientos admitidos.

*9. Documentación interoperable y verificable.*

1. Las personas o entidades interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de cualquier Administración Pública o que hayan sido elaborados por estas, de acuerdo con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015.

2. A estos efectos, el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dicha documentación a través de las plataformas de interoperabilidad habilitadas, salvo oposición expresa de la persona o entidad interesada, que deberá justificarse debidamente. En caso de oposición, será la propia persona o entidad interesada quien deba aportar la documentación correspondiente.

3. En este sentido, el Ayuntamiento de Tolosa verificará los siguientes datos para la tramitación de la presente campaña de bonos:

— Verificará de oficio y sin necesidad de consentimiento previo:

1.— Consulta, a través de las bases de datos del Ayuntamiento de Tolosa, de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones de pago con el Ayuntamiento.

2.— A través de Nisae, consulta de datos de identidad a la Dirección General de Policía.

— Y verificará los siguientes datos a través de Nisae, salvo oposición expresa de la persona o entidad interesada:

1.— Consulta de estar al corriente de las obligaciones tributarias a la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

2.— Consulta de estar al corriente de pagos a la Seguridad Social.

3.— Consulta de inhabilitaciones para obtener Subvenciones y Ayudas.

4.— Consulta del Impuesto de Actividades Económicas (IAE).

— Consulta, a través del Gobierno Vasco, de la titularidad de la cuenta bancaria, salvo oposición expresa de la persona interesada.

Excepcionalmente, si el órgano instructor no pudiera recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente a la persona/entidad solicitante su aportación.

*10. Subsanación de errores y documentación complementaria.*

Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

EK\CV GAO-I-2026-04745

*11. Deskontu-bonuen banaketa eta dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak.*

1. Izena eman duten eta baldintzak betetzen dituzten establezimendu guztiek bono kopuru bera jasoko dute.

2. Kanpainara bideratutako dirulaguntza (60.000 €) baldintzak betetzen dituzten establezimendu guztien artean banatuko da. Kalkulatuko da establezimendu bakoitzari zenbat bonu dagozkion, eta Tolosako Udalak horren araberako ordainketa egingo dio establezimendu bakoitzari.

3. Hala ere, establezimendu bakoitzak jasoko duen dirulaguntzaren zenbatekoa kanpainan erabilitako bonu kopuruaren araberakoa izango da.

4. Establezimenduek erabiltzen ez dituzten bonuei dagokien diru kopurua itzuli egin beharko diote Tolosako Udalari.

5. Edozein kasutan, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

6. Gure Dendak kanpainari atxikitako establezimenduen zerrenda Tolosako Udalaren webgunean argitaratuko da.

*12. Gure Dendak kanpainako bonuen erabilera- eta kudeaketa-sistema.*

1. Kanpainaren kudeaketa Tolosako Udalak horretarako prestatutako web-plataformaren bidez egingo da. Plataforma horren bidez izapidetuko dira parte hartzen duten establezimenduen atxikimenduak, bonuen esleipena, eragiketen erregistroa eta kanpainaren jarraipena.

2. Kanpainari atxikitako establezimenduek erabiltzaile-izena eta pasahitza izango dituzte plataforman sartzeko eta esleitutako bonuak kudeatzeko.

3. Plataformak automatikoki kontrolatuko du bonuen erabilera, eta honako hauek gertatzea eragotziko du:

a) Establezimendu batek esleituta dituenak baino bonu gehiago erabiltzea.

b) Pertsona erabiltzaile bakar batek oinarri hauetan ezarritako erabilera-mugak gainditzea.

4. Aldeko ebazpenaren bidez, Tolosako Udalak establezimendu parte-hartzaile bakoitzari dagokion bonu kopurua esleituko dio, eta horien zenbatekoa aldez aurretik ordainduko du establezimenduak adierazitako banku-kontuan.

5. Kanpainak irauten duen bitartean, establezimendu parte-hartzaileek kontsultatu egin ahal izango dute esleitutako, erabilitako eta erabilgarri dauden bonuei buruzko informazioa.

6. Era berean, herritarrek horretarako gaitutako bitartekoen bidez kontsultatu ahal izango dute parte hartzen duten establezimenduen zerrenda eta bonuak eskuragarri dauden edo ez.

7. Establezimendu parte-hartzaileek modu aktiboan eskainiko dizkiete bonu-deskontuak bezeroei, eta zuzenean aplikatuko dituzte salmenta-puntuan, horretarako gaitutako plataformaren bidez.

8. Deskontua aplikatu aurretik, establezimenduak hauek egiaztatu beharko ditu erosleari buruz:

a) Erosketa egiten den egunean 16 urte edo gehiago dituela.

b) Bonu erabilgarriak dituela.

9. Salmenta egin ondoren, establezimenduak plataforman erregistratu beharko du eragiketa, eroslearen NANa edo AIZa adierazita.

10. Era berean, establezimenduak tiketaren edo dagokion faktura sinplifikatuaren kopia irakurgarri bat erantsi beharko du plataforman, formatu digitalean, Udalak ezarritako jarraibideen arabera.

*11. Distribución de los bonos descuento y criterios para determinar la cuantía individualizada de la subvención.*

1. Todos los establecimientos inscritos que cumplan los requisitos recibirán la misma cantidad de bonos.

2. La subvención destinada a la campaña (60.000 €) se distribuirá entre todos los establecimientos que cumplan los requisitos. Se calculará el número de bonos que corresponden a cada establecimiento y el Ayuntamiento de Tolosa realizará el pago correspondiente a cada establecimiento.

3. No obstante, la cuantía de la subvención que recibirá cada establecimiento estará en función del número de bonos utilizados en la campaña.

4. Los establecimientos deberán devolver al Ayuntamiento de Tolosa la cantidad correspondiente a los bonos que no utilicen.

5. En todo caso, las ayudas se concederán en la medida que exista disponibilidad presupuestaria.

6. La relación de establecimientos adheridos a la campaña Gure Dendak se publicará en la página web del Ayuntamiento de Tolosa.

*12. Sistema de funcionamiento y gestión para el canje del Gure Dendak.*

1. La gestión de la campaña se realizará a través de la plataforma web habilitada para ello por el Ayuntamiento de Tolosa. A través de dicha plataforma se tramitarán las adhesiones de los establecimientos participantes, la asignación de bonos, el registro de operaciones y el seguimiento de la campaña.

2. Los establecimientos adheridos dispondrán de un usuario y contraseña para acceder a la plataforma, y gestionar los bonos asignados.

3. La plataforma controlará automáticamente la utilización de los bonos, impidiendo:

a) Que un establecimiento utilice más bonos de los que tenga asignados.

b) Que una misma persona usuaria supere los límites de utilización establecidos en las presentes bases.

4. Mediante la resolución positiva, el Ayuntamiento de Tolosa asignará a cada establecimiento participante el número de bonos que le corresponda, y abonará su importe anticipadamente en la cuenta bancaria indicada por el establecimiento.

5. Durante toda la vigencia de la campaña, los establecimientos participantes podrán consultar la información relativa a los bonos asignados, utilizados y disponibles.

6. Asimismo, la ciudadanía podrá consultar, a través de los canales habilitados al efecto, la relación de establecimientos participantes y la disponibilidad de los bonos.

7. Los establecimientos participantes ofrecerán activamente los bonos descuento a su clientela, y los aplicarán directamente en el punto de venta mediante la plataforma habilitada al efecto.

8. Antes de aplicar el descuento, el establecimiento deberá comprobar que la persona compradora:

a) Tiene 16 años o más en la fecha de la compra.

b) Dispone de bonos disponibles.

9. Una vez realizada la venta, el establecimiento deberá registrar la operación en la plataforma, indicando el DNI o NIE de la persona compradora.

10. Asimismo, el establecimiento deberá adjuntar en la plataforma una copia legible del ticket o factura simplificada correspondiente, en formato digital, conforme a las instrucciones establecidas por el Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2026-04745

11. Faktura sinplifikatuek gutxienez honako informazio hau jaso beharko dute:

— Faktura zenbakia.

— Fakturaren data.

— Saltokiaren IFZ.

— Saldutako ondasunen edo emandako zerbitzuen identifikazioa.

— Aplikatutako zerga-tasa, eta, aukeran, BEZ barne adierazpena ere bai.

— Kontraprestazio osoa.

12. Establezimenduek legez ezarritako epean gorde beharko dituzte egindako eragiketen egiaztagiriak, eta Tolosako Udalaren esku jarri beharko dituzte, beharrezko egiaztapenak egiteko, eskatzen zaizkienean.

*13. Dirulaguntza ordaintzea.*

Onarpen-ebazpena eman ondoren, esleitutako bonuen zenbatekoaren % 100 aldez aurretik ordainduko zaie establezimendu parte-hartzaileei, aldez aurretik establezimenduak adierazitako kontu korronte zenbakian.

*14. Pertsona/entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

1. Bonu-deskontuak oinarri hauetan eta kanpainaren funtzionamendu-jarraibideetan ezarritako baldintzen arabera aplikatzea.

2. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten kontsumitzaileei bonu-deskontuak modu aktiboan eskaintzea eta zuzenean salmenta-puntuan aplikatzea.

3. Kanpainak irauten duen bitartean, establezimenduko leku ikusgarri batean jartzea Tolosako Udalak emandako kanpainaren identifikazio- eta sustapen-materiala.

4. Diskriminaziorik edo tratu-desberdintasunik ez egitea bonuen erabiltzaileen eta gainerako bezeroen artean.

5. Bonuak eskudiruarekin ez trukatzea, ezta aplikatutako bonuari dagokion zenbatekoa eskudirutan itzuli ere.

6. Plataforman sartzeko kredentzialak arduraz zaintzea, baimenik gabeko pertsonei erabiltzen ez uztea, eta hirugarrenei ez lagatzea, ezta ematea ere.

7. Atxikimendua izapidetzean eta kanpaina garatzean aurkeztutako datu eta dokumentuen egiazkotasuna bermatzea.

8. Datu faltsuak adierazteak, datuak ezkutatzeak edo zehaztasunik gabeak izateak ekar dezake kanpainatik kanporatzea, jasotako zenbatekoak itzuli beharra eta aplikatu beharreko araudiaren arabera dagozkion gainerako erantzukizunak.

9. Tolosako Udalari hark eskatutako informazio eta dokumentazio guztia ematea kanpainaren garapen egokia, bonuen aplikazioa eta oinarri hauetan ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

10. Tolosako Udalarekin lankidetzan aritzea kanpainaren jarraipen-, kontrol- eta ebaluazio-lanetan, eta, hala badagokio, bidaltzen zaizkien galdetegiak edo inkestak betetzea.

11. Kanpainarako berariaz prestatutako idazki, iragarki, kartel, komunikazio eta gainerako materialetan euskara edo bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, euskarari lehentasuna emanez; baita kanpainarekin lotutako bozgorailu bidezko mezuetan ere.

11. Las facturas simplificadas deberán contener, al menos, la siguiente información:

— Número de factura.

— Fecha de la factura.

— NIF del establecimiento.

— Identificación de los bienes vendidos o servicios prestados.

— El tipo impositivo aplicado y, opcionalmente, la declaración del IVA incluido.

— Contraprestación total.

12. Los establecimientos deberán conservar la documentación justificativa de las operaciones realizadas durante el plazo legalmente establecido, y ponerla a disposición del Ayuntamiento de Tolosa cuando les sea requerida para efectuar las comprobaciones oportunas.

